



HIRIGINTZA

HAPO berria garatzen parte hartzea zentruan jarritz



Hondarribiko argazki orokorra. Argazkia: Abotsanitz.

Azken urteetan, HAPO edo Hiri Antolamendurako Plan Orokorra kontzeptua makina bat alditan entzun behar izan dugu Hondarribian. 2017ko Planaren baliogabetzea, Arau Subsidiarioen berrindartzean sartzea eta HAPO berriaren izapidetzea martxan jartzea bizi izan dugu udaletxean gaudenetik. Eta garbi esan genezake, EAJ-PNVren herentzia, kasu honetan ere, ez dela kudeaketa onaren eredu izan.

Indarrean dauden 1996ko Arau Subsidiarioetatik gaur egun arte, PNVren gobernuaren izan dugularik agintaldi, eraiki diren etxebizitzak %80a pribatua izan da eta %20a publikoa, nahiz eta arauetan adierazten zen erdia baino gehiago promozio publikoa izan zitekeela. Horrek, jeltzaileek nahi izan duten hiri-eredua adierazten digu, pribatuaren, negozioaren eta espekulazio urbanistikokoaren plangintza, alegia.

Denok eduki dugu inguruan Hondarribian bizi ezin eta kanpora joan behar izan duena, eskaintza nahikorik ez eta prezioen neurrigabeko gorakadarekin. Hiri-eredua aldatzea beharrezkoa ikusten dugu, Hondarribian lan egin eta bizitzeko aukera izan dezagun, auzoak iraganean zuten bizi hori berreskuratzeko, baina nagusiki, hiri eta gizarte kohesionatu bat nahi dugulako Hondarribian.

Batzuek esaten dutenaren aurka, adierazi behar dugu ez gaudela HAPOren prozesua dilatzen. Aberatsago, anitzago eta parte-hartzaileago egin nahi dugu, herritarren osotasuna ordezkatzen saiatuko dena, egiten egon garen bileren bitartez modu pedagogikoan hirigintza-arauak azaltzen eta batez ere, auzoen bitartez berpizten saiatzen.

PONER LA PARTICIPACIÓN EN EL CENTRO, TAMBIÉN EN EL PLAN GENERAL

En Hondarribia, el concepto "Plan General de Ordenación Urbana" se viene escuchando insistentemente durante los últimos años. Desde que estamos en el ayuntamiento nos ha tocado la anulación del Plan de 2017, la recuperación de las Normas Subsidiarias, y el proceso para poner en marcha un nuevo P.G.O.U. Y, una vez más, podemos decir que en este caso la herencia del PNV no es un modelo de buena gestión.

Durante los repetidos mandatos de EAJ-PNV, estando en vigor las Normas Subsidiarias de 1996, el 80 % de las viviendas construidas han sido privadas, aunque dichas Normas indican que más de la mitad deben ser de promoción pública. Esto ilustra el modelo de ciudad que potencia el PNV, basado en el negocio privado y la especulación urbanística.

Todas y todos tenemos a nuestro alrededor a alguien que no ha podido vivir en Hondarribia, a alguien que, sin alternativas ante la desmedida subida de los precios, ha tenido que emigrar. Es imprescindible un cambio del modelo de ciudad. Para que vivir y trabajar en Hondarribia no sea una quimera. Para recuperar la vida de los barrios, consiguiendo una sociedad y una ciudad realmente cohesionadas.

Contra lo que dicen algunas personas, nos reafirmamos: no estamos dilatando el proceso del P.G.O.U. Queremos un Plan enriquecido por las aportaciones, enteramente participativo, que represente a toda la ciudadanía, y por eso las reuniones donde intentamos explicar las normas urbanísticas de la forma más sencilla posible. Lo repetimos: revitalizar los barrios es nuestra prioridad.

MOZIOEN TXOKOA

Hondarribiko osasun zerbitzua hobetzeko mozioa

Otsailaren 29an, Osasun Zerbitzuen Hobekuntzaren inguruko mozioa onartu zen udalbatzan gehiengoz. Bertan, hainbat espezialitateren kontsultak Hondarribiko Anbulategian eskaintzea eskatzen genituen; Kardiologia, Erreumatologia, Helduen odontologia, errehabilitazio eta digestio-kontsultenak, alegia.

HIRIGINTZA/INGURUMENA

Actuaciones frente a las inundaciones

Cada vez son más frecuentes los perjuicios provocados por la hasta ahora inusual subida de las mareas. Frente a esto han surgido diversas propuestas (colocar válvulas de retención, construir diques, etc.), pero, por encima de la voluntad municipal, existen otras instituciones que no facilitan los permisos.

Vamos a poner sobre la mesa otras medidas ya planificadas que han estado paralizadas, concretamente los tanques de tormentas, que son responsabilidad de Txinzer.

HEMEROTEKA

Udal hemeroteca: 2020

Duela 4 urte, puntu lilen kanpaina abiatu genuen, non herrian emandako biolentzia matxistaren kasuak gizarteratzen genituen, kartelen bitartez. Orduko EAJ-PNVren udal gobernuak, 5 urte zeramatzan datu hauek publiko egin gabe eta gizartearen sentsibilizazio-kanpaina gisa, pausu bat aurrera egitea erabaki genuen. Orduan ere, Berdintasun planean genbiltzala adierazi genuen, bai eta Berdintasun saila eta hori kudeatuko duen teknikaria eskatzen ere.

Agintaldi plana

Lehenengo aldiak beti izaten dira bereziak, nagusiki ezezaguna zaigun zerbait lehen aldiz gautzen dugunean. 2023ko hauteskundeak irabaztearen emaitza izan zen gobernuaren estreineko aritzeko aukera. Baina horrek ere, baditu bere ondorio eratorriak, kasurako, lau urteko iraupena izango duen gobernuaren nondik-norakoak edota lan-lerroak zehaztearena. Aurretik aipatu bezala, ezberdinen arteko akordioaren bitartez osatu da agintaldi-plan hau, desberdintasunen gainetik

adostasunaren alde egin eta gobernu-talde anitz eta aberatsago bat bilatze asmotan.

Lau urteko agintaldi-plana zehaztu dutenen oinarria, herritarren ekarpenak izan dira. Azken 8 urteetan zehar egindako lanei esker jaso izan ditugun iradokizun, kexa, eskaera eta iritziak izan dira gure lan-ildoak markatzeko ardatz nagusi, 2023ko Udala Hauteskundeetako programaren garapen-tresna bat, alegia. Berdintasuna, justizia, elkartzasuna eta askata-

sunaren printzipioak mahaigaineratu nahi izan ditugu agintaldi plan hau osatzerako garaian eta horren adibide dira, lanketak osatzen dituen 142 neurriak.

Udaleko departamentu ororentzako ditugu proposamenak, udala zein herria aberasten, hobetzen eta anitzago egiten lagunduko duena. 142 neurri hauek betetzeko eta martxan jartzeko konpromezua hartu dugu, planaren exekuzio maila osotasuna izan dadin eta herriak behar zuen aldaketa praktikara eramateko.



<https://www.hondarribia.eus/eu/agintaldiplana>

POLITIKA

Eraldaketa politiko eta sozialaren aldeko tresna, akordioa.

2023ko maiatzeko Udal Hauteskundeek, lehen aldiz, aldaketa politiko baten aldeko hautua adierazi zuten. Abotsanitzek estreinakoz lortu zuen garaipena, azken bi agintaldietan oposizio lanetan egon ostean eta justuki, hor egon daiteke emaitzen giltzetako bat: Azken urteetan egindako herri-errekiko lana, proposamen ugari aurkeztearena eta akaso, hein batean, noraezean eta kudeatzeko gai ez zen udal gobernu bat erakutsaraztea.

Hauteskundeen ostean, eta ikusirik gehiengo osoa osatzen ez zela, gobernagarritasunerako akordio baten aldeko apustua egin zen, hasiera batean, Hondarribiko PSE-EE eta EH Bilduri eskaini zitzaiena. Sozialistek ez zuten akordioan parte hartu nahi izan eta ostera, EH Bilduk, baiezkoa adierazi zuen. Hori dela eta, eraldaketa politiko eta sozialerako borondatea dugu bi alderdiok eta oinarri horren pean, osatu dugu udal mailako paktua.

Finkaturiko helburuei dagokionez, udal administrazio sendo eta moderno bat sustatzea dugu erronka nagusienetako bat. Instituzio sendo batek lagunduko gaitu ere, herritarren partaidetzan oinarritutako herri-gizarte bat sortzen. Hortaz aparte, justizia soziala eta herritar ororen bizi-baldintzak hobetzea ere baditugu jomuga, bai eta eskualdeko jarreraren ildo independenteak markatzeko ideia ere.

Akordioa praktikara eramanez, konpromiso jakin batzuk hartu ditugu Hondarribiarekin, hurrengo zerrendan aipatuko direnak:

142 neurri osaturiko Agintaldi plana, HAPOaren eguneratzea, Euskararen indartzeko neurri ezberdinak, Berdintasun saila zein teknikaria sortzea, Udalaren Etxebizitza Parke Publikoa sortu eta Hondarribian Bizi ahal izateko ekintza ezberdinak jorratu, Hondarribiko mugikortasuna birformatu eta garraio publiko zein

oinezko eta bizikletak lehenetsiko dituen eredu jorratu, zaintzen duen hiri baten aldeko apustua egin Gizarte Zerbitzuetatik, gertuko, bideratzailea eta gardena izango den udal-administrazioa eraiki, komunikazioa eta aldebikotasuna oinarri izango duena, alardearen afera konpontzeko hondarribiarren arteko sentsibilizazio eta elkarrizketetan oinarrituta egon dadila, hezkuntza kontseilua sortu Hondarribia herri hezitzailea izan dadin eta azkenik, energia eta jasangarritasunaren inguruko plana zein ekimen ezberdinak jorratzea.

Ikusten duzue, helburuak, erronkak eta konpromisoak ugariak ditugu lau urte hauetarako, baina joan den maiatzean sortu zen ilusio horrek eta herritarrengandik jaso dugun babesarekin, gai izango gara agintaldi honetan gure agendetan gorri markatu ditugun neurriak burutzeko!

UDALGINTZA

Martxan jarri duguna

Zazpi hilabete pasa dira dagoeneko udal-gobernua sartu ginenetik, eta administratiboki denbora-tarte motza bada ere, aukera izan dugu gure lan-lerroen lehen zertzeladak herriari eskaintzeko. Lehenengoz eduki dugu herriko jaietako egun guztietan 24 orduko artatze-puntua eta urrezko intsigniaren aukeraketa, prozesu parte-hartzaile baten bitartez burutu zen estreinekoz. Herritarrei zerbitzu berriak eskaini eta zeudenak hobetze aldera, Mendelu auzoan kokatuko den open-gela burutzeko, Stanley eraikinaren erosketa burutu dugu. Hortaz aparte, astelehenero Txingudiko Zerbitzuen bulegoa BAZen egotea ahalbidetu, Kiroltxartela Mugiment programara batu edota irekitzeko zegoen komun publikoa Sabino Arana kalean birkokatu dugu.

Udaleko funtzionamenduari erreparatzen badiogu, udal-langilegoaren osatzea eta egoera-hobetzea ahalbidetu duen prozedura abian jarri dugu, Auzo-Bihotzak ekimena sortu dugu, auzoak aktibatu eta zuten bizitza berreskuratzeko asmoarekin, bai eta Udaleri Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA) sartu ere, euskara indartu eta hedatze aldera bultzada handia izango dena.

Lehenengo neurri-sorta hau hasiera besterik ez da izan. Hemendik aurrera eta 2024ko aurrekontuetan finkatu bezala, gauza berri, interesgarri, egingarri eta erakargarriak datoz herriari bultzada bat emango diotenak!

UDALGINTZA

Etorkizunean martxan jarriko diren neurriak

Agintaldi plana eta aurtengo aurrekontuak onartzearekin bat, udalaren lan-funtzionamendua markatuko duen oinarria osatu da, hau da, proiektuak finkatu eta hori garatzeko beharrezkoak diren partida ekonomikoak. Hori dela eta, hurrengo hilabeteetan, hainbat jarduerak edo proiektu garatzeko asmoa daukagu, Hondarribiarren hainbat eskaera historiko aintzat hartzen dituztenak.

Aurreko udal gobernuak hitza eman bazuen ere 2022an Biteriko parkea estaliko zela, ez zegoen haien lehentasunen barruan. Guri dagokigunez ordea, eta partida berarekin, biterikoaz gain beste bi haur-parke estaltzeko konpromisoa dugu hurrengo hilabeteetarako. Gure beste eskaeren artean, San Nikolas zubia berritzearena dago, azken urteetako utzikeriak egoera kaxkarrean utzi baitu, eta epe motzean hobekuntza lanak beharrezkoak baitutu. Hortaz aparte, hirigunean kokatuta dagoen Santiago kaleko berhiritartzea

burutzeko ideia daukagu, hirigintza lan horien azken fasea izango zena, 1 eta 21 sotoen artekoa, alegia.

Mugikortasunari dagokionez, hurrengo aste eta hilabeteetan ikus genitzaken aldaketan artean, Talaia-Alai proiektua edukiko genduke, non Talaia institutu eta eskola ingurua hobetzeko asmoa duen, espazio seguruak bihurtuz oinezkoen eta ibilgailuen artean. Horrekin batera, Amute 29an kokatuta dagoen etxebizitza eraitsi egingo da, inguruko Bidegorri sarea birkonektatuz, lotura egoki bat sortzeko asmoarekin.

Amaitzeko, eta gure esfortzua herri-nortasuna sendotzeko ere jarri nahi dugulako, itsas-ondarearen inguruko topaketa sortuko dugu udaberrirako, hainbat hitzaldi, bixita eta kale-ekitaldi ezberdinek hornituko dituen. Asmoa, topaketa hauek urteroko ekintza egutegian txertatzea izango litzateke.

ESANA

“ La respuesta agresiva del Ayuntamiento a la propuesta serena y constructiva del PNV no es ejemplarizante de cara a la ciudadanía. ”

EAJ-PNV,
Hondarribia




El pasado 1 de marzo en el Diario Vasco, día después del pleno ordinario del 29 de febrero.

GRAFIKOA

Datu orokorrak

Guztira: 29.053.752 €



Gaiarekin edota ekintza/partidekin sakondu nahi ezkerre, hurrengo QRa bisitatu



UDALGINTZA

Aurrekontuak

Gobernura iritsi ginenetik, lehenengotariko gauza izan zen aurrekontuak osatzaren lan-tarena. 2024koak izango ziren gure estrainekoz osatu beharrezkoak eta garbi genuen, aldaketan aldeko apustua egingo genuela. Iazkoa baino %15a inguru igo dugu aurrekontua eta guztira, 29 milioi pasatxo izango ditu aurtengo aurrekontuak.

2023ko uztailetik azaroaren 23ra arte iraun duen lanketak, ahalbi-

detu du 2024 urtea hastearrekin bat, dirua erabilgarri egotea, lehen bait lehen proiektuak martxan jartzeko. Eta esan behar dugu ere, aurrekontuetan jaso den guztia, aurten exekutatu daitekeela eta hori dela eta, proiektuaren batzuk aurrekontuetatik at geratu dira, prozedura administrazioa hasi gabe zutenena, alegia. Horregatik garbi esaten dugu, gardentasunaren aldetik, aurtengo aurrekontuak, errealkak eta gauzagarriak direla.

Aipatu beharra dugu ere, esan genezakeela ere aurrekontu sozialak direla inondik ere, nagusiki herritarren ekarpenak izan baitira oinarri proiektuak jasotzerako orduan eta hortaz aparte, esfortzu extra bat burutu dugu aurrekontuak modu pedagogikoan herritarrei azaltzeko, hots, ulertezkoak izatea. Eta amaitzeko, eta gardentasuna ariketa bat eginez, aurrekontuaren exekuzioa hiru hilabetero berri emango dela, betetze-maila eta gauzatzeko dauden proiektuetan.

Albiste hauek eta gehiago jarraitzeko

abotsanitz.eus

Para leer éstas y más noticias

